

CULTURA

Haurdunaldiko bizipenez eta amatasunaz idatzi du Jasone Osorok

29.11.09 - 09:29 -

0 Comentarios | **Twitter** 0 +1 0 **Compartir** **Recomendar** 0

DONOSTIA. DV. Idatzi dituen liburuen artean, “errazena eta zailena” gertatu zaio Jasone Osorori Bi marra arrosa (Txalaparta). Errazena, ondo ezagutzen duen gai bati buruz idatzi duelako: haurdunaldiaz eta amatasunaz. Zailena, biluztea eta intimitatea -bera ez ezik, bikotekidearena- agerian uztea eskatu diolako.

Argialetxeak eskatuta ekin zion lanari Osorok, zalantza ugariren ondotik. Euskaraz amatasunari eta ama biologiko izateko ezinbestekoa den bederatzi hilabeteko esperientziari buruz idatzi den aurreneko liburua da Bi marra arrosa, aita izatearen esperientziaz Lander Garrok idatzi duen gibel solas eder batek osatu duena. Jasone Osororen lehen haurdunaldiaren kontakizuna da, predictor edo dena delakoan bi marra arrosa azaldu ziren unetik alaba besoetan izan zuen momentura arteko «mendi errusiarraren» berri ematen duena. Hiruhilekoz hiruleko kontatu ditu bederatzi hilabeteko esperientziak, aldaketaz aldaketa, ezustekoz ezusteko, sentimenduak, anekdotak eta era askotako bizipenak bilduz, bizi-bizi eta umore puntu batez.

Txikitan, Jasone Osorok ez omen zeukan ama izateko irrika berezirik. Amatasun sena gizonezkoen asmazioa zela uste zuen, askoz hurbilago sentitzen zen Mafaldarengandik Susanitarengandik baino... Halako batean, ordea, “zer edo zer aldatu zen”, eta ama izatea lehentasun bilakatu zen. Geratu zen haurdun, eta orduan hasi zen «bidaia izugarria, batetik ilusioa eta poza, bestetik beldurra eta zalantzak» piztu zizkiona.

Beste aldaketa bat ere ekarri zion haurdunaldiak: «Haurdun geldi_tzen zarenean, haur bat duzunean, bakarrik alaba izateari utzi eta ama izatera pasatzen zara, eta hori oso garrantzitsua izan da niretzat». Bizipen horiek guztiak partekatu nahi izan ditu irakurleekin, argi utzirik betiere ez dela «ezeren erreferente», ez dituela “erantzunak eta errezetak” ematen, ez duela gida bat idatzi, bere bizipen eta esperientzien bilduma baizik. Aurreneko haurdunaldikoak, azpimarratu du, liburua idazten ari zela berriro geratu baitzen haurdun alaba jaioberria duen Jasone Osoro. «Lehenengo haurdunaldiak eta bigarrenak ez dute zerikusirik. Lehenengoa da magikoa; bigarrenak nobedadearen xarma galtzen du, badituzu erantzun gehienak».

Errezetarik eman gabe, badu gomendio bat: ‘Gaur badirudi haurdun egotea gaixotasun bat dela, gauzarik naturalena eta normalena izan beharrean. Informazio asko iristen zaizu, gehiegi, eta horrek estresatu egiten du. Nire ustez, normaltasuna eta lasaitasuna dira klabeak, eta ondo dagoena zu ondo sentiarazten zaituena dena jakitea’.